

euskararen berripapera



200

Eibarko ...eta kitto! aldizkariak eta Euskaltelen kanpaina batek jaso dituzte **Ukan** Berrikuntza eta Publizitate **sariak**

Ukan Publizitate sariaren Aipamen Berezia ere eman du aurten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Dermitek klinika dermatologikoak 2008an egindako publizitate-kanpainak jaso du Aipamen Berezia.



Ukan sariaren irabazleak Miren Azkarate eta Patxi Baztarrikarekin.

Ukan Berrikuntza sariaren bidez kontsumitzaileen premiak eta beharrak ase eta,aldi berean, ekonomikoki bideragarria egite aldera berariazko ahalegina egin duen euskarazko hedabidea saritu eta dagokion aitortpena egin nahi da. Ukan Publizitate sariak, berriz, hedabideetan zabaltzeko asmoz ekoiztutako euskarazko publizitate-iragarki onena aintzat hartu eta saritzea du xede.

Ukan Berrikuntza saria, ...eta kitto!-rentzat

Epaimahaiak ...eta kitto! eredugarri jo du. 20 urte ditu hedabide horrek, 20 urte oparo eta arrakastatsu, hain zuzen ere etengabe egokitzen eta berritzen asmatu duelako. Jaio eta berehala tabloide formatuko bi koloreko aldizkariak hilerok hartu zuen kalerako bidea. Herriko kioskoetan doan banatzen hasi ziren hilabetekari berria. Arrakasta lortu zuen berehala eta handik gutxira hilabetekaria hamabostekari izatera pasatu zen. Euskara estandarizatu zein tokiko berbera modua erabiltzen zuen. Eta berritzen jarraitu zuten: astekari izatera pasatu zen eta kioskoetan geratu ordez, herriko postontzietarako jauzia egin zuen. Azterlanek diotenez, herrian gehien irakurtzen den aldizkaria da. Irakurle dituztenen iritzi eta apetak eza gutze aldera azterlan sendoa egin dute berrikitan, baita ondorioen arabera jarduteko konpromisoa hartu ere.

Ukan 2008 Publizitate saria, zuntz optikoari buruz Euskaltelek egindako kanpainarentzat


Epaimahaiaren iritziz lehentasunezkoa da gizartean, arlo ekonomikoan, liderrak eta punta-puntakoak diren enpresak izatea publizitatea euskaraz ere egiten dutenak. Horrek bi ondorio positibo ditu: liderrak direnek erabiltzen duten hizkuntzak prestigioa eta balioa irabazten ditu gizartearen begietan; eta liderrak diren enpresak erabiltzen duten hizkuntza eredugarri izan dakieke gainerako enpresei. Zuntz optikoari buruz egindako kanpainak, Dimensión Agentziak sorturikoak, jaso du saria. Kanpaina hori sustatu duen Euskaltel enpresa bertakoa da eta liderra. Era berean, hemengo bi hizkuntzak kontuan hartzen ditu bere jardueran. 2008an hainbat euskarritan kaleraturiko kanpaina saritu du epaimahaiak. Kanpainarekin erakutsi dute euskarak "saltzeko" ere balio duela eta guztiz posible dela publizitate-iragarkiak euskaraz oso modu txukun, egoki eta komunikatiboan egitea. Beste askotan ez bezala, kasu honetan ez du gaztelaniazko bertsioak euskarazkoa hipotekatu.

Aipamen Berezia, Dermitekentzat

Epaimahaiak euskarazko publizitateari duela gutxi arte oso arrotz izan zaion esparru batean publizitatea euskaraz egin duen enpresa bati Aipamen Berezia ematea erabaki du. Tratamendu dermatologikoen eta kirurgia estetikoaren eremuan abangoardiako teknologia medikoa darabilen enpresak 2008an egindako publizitate-kanpaina saritu da. Bilbon egindako kanpaina da, euskaraz oraindik ere oso presentzia txikia duen hirian, baina milaka hiztun bizi diren hirian. Euskarari dagokionez, oso modu txukun, egoki eta errazean egindakoa, euskaraz pentsaturikoa dela esan du epaimahaiak ●

Euskarazko software-produktuak eta Internet edukiak aurkeztu ditu HPSk

Batetik, ordenagailuan euskara erabiltzeko hiru produktu aurkeztu ditu: EusLinux 2009 software libreko sistema eragilearen bertsio eguneratua, Xuxen zuzentzailearen IV. bertsioa eta ordenagailuz lagundutako itzulpen-tresna bat, Wordfast. Eta, bestetik, bi corpus: Lur Hiztegi Entziklopediko eta Lur Entziklopedia Tematiko eguneratuak, eta euskaraz idatzitako doktoretza-tesiak.



EusLinux 2009

Oraingoz prest diren produktuak sarean, **www.euskara.euskadi.net** helbidean, daude doan deskargatzeko. Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak produktuok aurkez-

tean azpimarratu zuen HPSrentzat IKTetan (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) euskara sustatzeak, alegia, teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatu eta herritarrei eskaintzeak duen garrantzia: «Ikuspuntu horretatik, aurrera begira ere, euskarazko IKTak bultzatzen eta babesten jarraitzeko asmoa du HPSk. Ez izan horretan zalantzarik. Asmo sendoa dugu zeregin horretan lanean jarraitzeko, zeharo zabalik gaude elkarlanerako, eta animatu egin nahi zaituztet hemen zaudeten agenteak eta oro har guztiak lanean fin segitzera, eta ikuspuntu horretatik sortzen dituzuen eta dituzten egitasmoek irekita aurkituko dituzte Eusko Jaurlaritzako atearik».

7 milioi euro legealdi honetan

Euskarazko software libreko sustatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, hasieratik, ia-ia milioi bat euro inbertitu du (legealdi honetan milioi erdia). Bestalde, Xuxen zuzentzailearen bertsioak garatzen 270.000 euro baino gehiago inbertitu du (legealdi honetan 200.000 baino gehiago). Lur Hiztegiaren eta Entziklopedia Tematikoaren aurrekontua 370.000 eurokoa izan da eta doktoretza-tesiena 178.500 eurokoa.

Legealdi honetan euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia sustatzeko diru-laguntzen deialdien bidez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 4.450.000 euro inbertitu ditu: % 170eko gehikuntza izan dute diru-laguntza hauek legealdiko lau urteetan. Eta zuzenean agenteei kontratatutako bestelako proiektuetan (tresnak, lanabesak, software-lokalizazioak...) 1.800.000 euro baino gehiago. Horrez gain, Anhitz ikerketa-proiektua ere sustatu du HPSk legealdi honetan 570.000 euroekin. Beraz, legealdi honetan 7.000.000 euro inguru inbertitu ditu HPSk euskarazko IKTak bultzatzeko.

EusLinux 2009 software libreko sistema eragilearen bertsio eguneratua

Windows eta Linux sistema eragileak euskaraz daude. Bulegotika-arloan, Microsoft Office eta OpenOffice.org daude euskaraz. 2002az geroztik bai Linux eta bai OpenOffice.org produktuen hainbat bertsio eta banaketa prestatu, eguneratu eta

banatu du HPSk. Proiektu honetan UZEIk, Elhuyar Fundazioak, Zundan enpresak, EJIk eta HPSk parte hartu dute.

Xuxen zuzentzailearen IV. bertsioa

Asmoa zen, batetik, zuzentzaileak hiztegi gehiago ezagutzea (esparru sozio-ekonomikoko hiztegi asko sartu dira bertan) eta, bestetik, funtzionalitate berriak gehitzea hainbat gramatika- eta estilo-zuzenketa egiteko. Beraz, lehenengo aldiz Xuxen zuzentzaileak uztartu ditu zuzentzaile ortografikoa eta zuzentzaile gramatikala, nahiz eta zuzentzaile gramatikala garatzen jarraitu beharko den, zuzenketa gehiago lortzeko. Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak egin du Xuxen IV. bertsioaren garapena.

Ordenagailuz lagundutako itzulpen-tresna bat, Wordfast

Itzultzaile askok eta askok itzulpen-memoriak antolatzeko erabiltzen duten aplikazioa da eta aspalditik zegoen eskaria aplikazio hori euskaraz jartzeko. Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresa arduratu da lokalizazioaz.

Lur Hiztegi Entziklopediko eta Lur Entziklopedia Tematiko eguneratuak

Lehenak 10 liburuki eta 3 eranskin-liburuki ditu. Bigarrenak berriz, 12 liburuki ditu, lau Euskal Herriaz eta zortzi gai unibertsalei buruzkoak. Hori guztia digitalizatu eta on-line jarriko da hurrengo hilabeteetan.

Euskaraz idatzitako doktoretza-tesiak

Udako Euskal Unibertsitatearen bidez hainbat espezialitate-eremutako 119 doktoretza-tesi bildu dira oraingoz. Corpora kontsultatzeko aplikazioa prestatzen ari dira eta hurrengo hilabeteetan tesiak on-line kontsultatzeko aukera izango dugu hainbat erreferentzia kontuan hartuta: egilea, urtea, jakintza-eremua, unibertsitatea eta abar ●





Begoña Echeverría

Arimak salbatu, hizkuntzetan hitz egin: erlijio gatazka, generoen aldaketa euskararen

Euskaldunak berandu samar ebanjelizatu izanari nolabaiteko meritua eman zaio, euskara mantentzeko dagokionean. Erromatar elizaren ustezko eragin orokortzailetik babestuta (ahalegin logikoa), euskaldunak aske ziren beren jainkoak beren hizkuntzan nahi zuten moduan gurtzeko. X. mendean, euskaldunak erlijioz aldatu eta katoliko sutsu bihurtu ziren. Hala ere, ez zituzten ezinbestez guztiz alde batera utzi beren sinesmen "paganoak" (eta sinesmen horiek ere euskaraz transmititu ziren).

Begoña Echeverriak idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.

Argitalpenak



Recuperación del Euskera en Navarra

Gros i Uadós,
Miquel



Bilingualism and Identity. Spanish at the crossroads with other languages

Niño-Murcia, M. eta
Rothman, J.



Azterlana

Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan jardunaldiaren inguruko gogoeta

Aierdi, X. eta Uranga, B. (ed.)

Euskadiko biztanleen % 90 euskararen erabilera-plana duen udalerrietan bizi da

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) eta erakundeen erabilera-planak diseinatu, kudeatu eta jarraitzeko Irati deituriko aplikazio informatikoa sortu dute.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburordetzak joan den urtarrilean Bilbon antolatutako "Erabilera-planak herri-administrazioetan" lan-jardunaldietan herri-administrazioetako 230 euskara-teknikarik hartu zuten parte. Jardunaldi horiek bi helburu nagusi zituzten: batetik, hainbat erakunderen erabilera-planen berri ematea, eta bestetik, erabilera-planak diseinatzerakoan zein ekintzak gauzatzerakoan sor daitezkeen arazoei irtenbideak ematea.

Administrazioko euskararen erabilera normalizatzeko planak indartzea Hizkuntza Politikarako Sailburordetzaren jardunbide nagusietako bat da, euskararen erabilera aurrera egin dezan oso garrantzitsua baita. Azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek ahalegin handia egin dute euskararen erabilera-planak diseinatu eta martxan

jartzeko. Dagoeneko, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta hiru hiriburuek, beste hainbat erakunde eta ehundik gora toki-entitatek onartu dituzte euren erabilera-planak. Hau da, Euskadiko biztanleriaren % 90 euskararen erabilera-plana egiteko ardura hartu duen udalerritan bizi da.

HPSk lanean dihardu, ahalik eta eperik laburrenean, herri-administrazio guztiek beren erabilera-plana onar eta abian jar dezaten. Hain zuen ere, bide horretan laguntzeko, Irati deituriko aplikazio informatiko berria sortu dute. Otsailean martxan jarri den aplikazio simple eta malgu horren bidez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) eta erakundearen erabilera-plana diseinatu, kudeatu eta jarraitu ahal izango da. Dagoeneko, 80 erakundetako 200 euskara-teknikarik eman dute izena Irati aplikazioa erabiltzeko ●





Euskara sustatzeko elkarlana



Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako hizkuntza-politikako ardura duten sailek euskara sustatzeko elkarlana hitzartu dute. Bi gobernuek sinatu berri duten *Asmoen Adierazpena* agiriak euskararen normalizaziorako elkarren arteko loturak estutzea du xede, eta azken urtean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskarabidea Nafar Institutuak egindako lan-bilera ugarien ondorio da.

Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko sustapena, ikerketa, dokumentazioa, plangintza eta hizkuntza-politika sustatzeko harremanak estutu eta euskararen hizkuntza-normalizazioaren alorrean lankidetzak eta harremanak hobetuko dituzte. Elkarlanaren ondorio nagusienez, bat Nafarroako eta EAeko administrazioek hizkuntza-curriculum komuna eratzea izango da, biek homologatu beharreko egiaztatzeak eta titulazioak ezarriz.

Bi gobernuen arteko elkarlana Europako Kontseiluak hizkuntzen alorrean emandako gomendioekin bat etorri da ●

Udaltop, udaletako euskara zerbitzuen jardunaldiak



Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) laguntzarekin, Udaltop Udaletako Euskara-Zerbitzuen I. Topaketak antolatu dituzte. Udaltop jardunaldien lehen edizioa maiatzaren 7an eta 8an egingo dute Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Helburua Euskal Herriko udaletako euskara zerbitzuen arteko elkarlana sustatzeko bideak irekitzea da.

Euskara teknikarien topagune bihurtzeaz gain, hausnarketak, ikerlanak eta esperientziak aurkeztuko dituzte. Aurtengo gaia "Nola indartu euskararen erabilera familietan?" izango da.

Jardunaldiak udaletako euskara teknikariei zuzenduta badaude ere, euskararen normalkuntzan lanean diharduen elkarte, erakunde eta profesional orok eta etorkizunera begira beren formazioa sail horretara bideratuko duten ikasleek har dezakete parte.

Udaltopen webgunea (www.udaltop.com) sarean da jada. Bertan, bilduko da jardunaldiekin zerikusia daukan informazio guztia, parte-har-tzaileen jarrera aktiboa bultzatzeko helburuarekin ●

ONCEk euskarazko 85 literatur lan egokitu ditu



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta ONCEk (Espainiako Itsuen Elkarte Nazionala) 2008an sinatu zuten lankidetzak-hitzarmenaren balantzea egin dute. Hitzarmen horren helburu nagusia euskaraz bizi nahi duten eta, kasu honetan, ikusmen urritasuna duten herritarrei euskarazko liburuak eta edukiak eskura jartzea da, herritar horien hizkuntza-eskubideak bermatze aldera.

ONCEk, iaz, euskarazko 85 literatur lan Braille sistemara eta Daisy formatura egokitu zituen. Besteak beste, Mariasun Landaren *Festa aldame-neko gelan*, Iban Zalduaren *Traizioak* eta Anjel Lertxundiren *Ihes betea*. Dagoeneko, 300 obra inguru egokitu eta jarri dituzte ikusmen urritasuna duten euskaldunen eskura. Literatur lanez gain, ikusmen urritasuna duten pertsonak erabiltzeko baliabide informatiko berria ere aurkeztu dute: Elhuyar hiztegi elektronikoa ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) Tel.: 945 01 81 16 • berripapera@ej-gv.es

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

